

GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETATIK SARTZEA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 44, 53 eta 65. artikuluetan zehaztutako Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulua, diseinu eta arte plastikoetako goi mailako teknikari titulua, goi mailako kirol teknikari titulua edo baliokidea dutenek ez dute sarrera-probarik egin beharko unibertsitateko graduako ikasketa ofiziale-tara sartzeko.

Onarpen nota

Maiatzaren 7ko 558/2010 Errege Dekretuaren 7.artikuluaren araber, eskaera kopurua plaza kopuru baino handiagoa den graduako unibertsitate ikasketa ofizialetan sartu ahal izateko, lehen aipatu diren tituluak dituzten ikasleak fase espezifikora aurkeztu ahal dira onarpen nota hobetzeko. Fase espezifikoko hori honako irizpide hauen arabera izango da:

- Ariketetan ebaluatuko diren gaien edukia aurrerago argitaratuko da.
- Ikasle bakoitzak gehienez lau ariketa egin ahal ditu, berak aukeratzen dituenak.
- Ariketa bakoitzean bi aukera egongo dira eta ikasleak bat aukeratu beharko du.
- Ariketa bakoitza Otik 10 puntura bitartean kalifikatuko da, bi zifra dezimalekin. Azterketa gainditzeko gutxienez 5 puntuko kalifikazioa lortu behar da.
- Unibertsitate publikoek kasuan kasuko onarpen notaren arabera esleitu dituzte plazak. Nota hori behean agertzen den formularen arabera kalkulatu da eta hiru zifra dezimal izango ditu.

$$\text{Onarpen-nota} = \text{ZBN} + a \times \text{M1} + b \times \text{M2}$$

ZBN = Heziketa zikloko batez besteko nota.

M1, M2 = Fase espezifikoko gainditutako proben artetik onarpen nota onena ematen duten kalifikazioak, gehienez bi.

a, b = Fase espezifikoko azterketako notak haztatzeko parametroak.

Parametro hauek, UPV/EHU, jarraian agertzen diren koadroetan zehaztutakoak izango dira: